

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2020

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

Arratsalde parteko itzulia Maddalen Ibarra San Martín

Ama-alaba ez zeuden jokoan. Aldapan gora ari ziren, isiltasunean. Bat-bi, bat-bi. Pausoak kontatzen zituen alabak. Egunero 10.000 pausu eman behar direla diote espezialistek. Eta bi litro ur edan. Arratsalde osoa zeramaten denbora pasa, irakurtzen, irratia entzuten.

- Zera... pentsatzen ari nintzen ea mendira etorri nahi duzun nirekin.
- Bale.
- Ongi.

Isiltasuna.

- Etxetik gorako bidea har genezake. Gaztainak biltzen genituen lekutik igaro.
- Harri bat jaurti dezakegu ondoko leizetik, lehen egiten genuen bezala.
- Banoa berokiaren bila.

Buruan dabil bueltaka Madrilera ikastera joan zenez geroztik familia eta lagunekin urtero egiten zuten gaztaina-bilketa egunera ez dela bueltatu. Nostalgia iraultzen da bere gain ipurmasaileko giharrak eskaileretan gora tenkatzen diren bitartean. Armairua ireki eta aitaren polarra jantzi du. Goraino kremlera.

- Prest.
- Hotz handia egiten du kalean.
- Badakit, ama.
- Hobe zenuke bufanda bat hartzea.

Atea ireki du alabak. Joder, egia da hotza egiten duela. Bihar katarro izugarria edukiko dut.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

- Har ezazu lepoa babesteko zeozer.

- Ezetz ama, ongi nagoela.

Barrura sartzeko keinua egiteko astirik ez du izan amak.

- Ezta okurritu ere bufanda baten bila joaterik. Goazen.

Abiatu dira goraka. Arratsaldeko azken argi-izpiek kiskaltzen dituzte soroak. Txoriak adaxkatik adaxkara, iluna datorrela txioatzen. Ataka bat, gero bestea ireki. Zapatilak lokatzez blai. Mendiko botak jarri izan banitu...

- Zer diozu?

- Deus ez, ama. Orain ahotsak entzuten dituzu, ala?

- Zahartzen ari naiz, neska. Geroz eta gutxiago aditzen dut.

- Ez esan tontakeriarik. -Goraka jarraitzen dute, isilik- Entzun duzu hori?

- Ez ibili txantxetan.

- Benetan diotsut. Ehiza-txakurrak dira. Begira, isil zaitez.

- Bai. Tira, goazen makilen bat hartzera. Ez lukete aske egon behar ordu honetan. Beharbada txabolatik irten dira.

Hurrondoak dira onenak. Makil luze, zuzen eta gogorak lor daitezke hurrondoetatik. Ez gaztainondo madarikatu hauetako adarrak bezala. Lau apurtu zaizkit jada.

- Ama, ez dut ezer aurkitzen. Denak dira txikiak edo bihurriak. Hartu bezain pronto apurtzen zaizkit.

- Helduiozu honi. Banoa zuretzako egokia den beste baten bila.

- Utzi, ama. Batekin moldatuko gara.

- Ez zait deus kostatzen.

- Ia leizean gaude. Ez du merezi.

- Ixo.

- Ez zaitez asko urrundu.

Bi metroko adar gazte bat dakar arrastaka. Nekez kentzen dizkio adaxkak.

- Luzeegia akaso. Bista ere galtzen ari zarela ematen du, ba.

Zuntz berdeek amaren segurtasuna abandonatzeari uko egiten diote. Bihurritzen, luzatzen dira hariak. Ama tiraka. Ostikoka. Zalpaka. Atera ditu, ba, azkenean giltzak. Banan-banan moztu ditu adar hesteak.

- Badakizue zuek, gazteok, erresistitzen.

- Zaharrok baduzue ere egoskor puntu bat.